



KULTURA ETA JASANGARRITASUNA INPLEMENTAZIORAKO GIDA

Laburpen exekutiboa



**Kulturaren
Euskal Behatokia**
Observatorio Vasco
de la Cultura



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

LABURPEN EXEKUTIBOA

2018an egin zen kultura eta jasangarritasunari buruzko txostena zabaltzea da azterlan honen xedea, eta asmo bikoitz batekin diseinatu da: batetik, kulturaren eta jasangarritasunaren arteko binomioari buruzko auziaren egoera eguneratzea, eta, bestetik, gida praktiko bat egitea, ingurumen-eremuan garapen jasangarriko neurriak hartu nahi dituzten kultura-sektoreko erakundeen ekintza gidatzeko.

Helburu horiek lortzeko, nazioartean eta eremu estatal eta autonomikoan lehendik dauden proposamenak sakonetik berrikusi dira, eta ideia nagusiak laburbildu dira ekintza-gida praktiko bat egiteko, hura inplementatzeko baliagarri den erreminta multzo bat barne.

Kulturaren eta jasangarritasunaren arteko binomioari buruzko auzia une honetan zertan den aztertzeko, lehenik eta behin, *garapen jasangarriaren* eta *kulturaren* definizioak mugatu behar dira, txosten osoa horietan oinarrituko dela aintzat hartuta.

Garapen jasangarria honela defini dezakegu: oraingo belaunaldiaren premiak gogobetetzea, etorkizuneko belaunaldien premiak gogobetetzeko gaitasuna kolokan jarri gabe, eta orekaz lortu behar diren oinarritzko hiru zutabetik abiatuta osatzen da: **garapen ekonomikoa, garapen soziala eta ingurumenaren babesa**.

Kultura, berriz, honela defini daiteke: jarduera multzo bat, kontsumitu edo sor daitezkeen eta inplikaturako eragileengan eragiten duten jarduerak izanik. Kultura-, arte- eta sormen-jardueretan parte-hartzearekin zerikusia du kontzeptuak, kultura-kontsumoaren zein kultura-produkzioaren ohituren ikuspuntutik.

Kulturaren, aurrerabidearen eta garapenaren arteko lotura begi-bistakoa bada ere, jasangarritasuna garapenaren oinarritzko faktore gisa txertatu denean kultura bigarren plano batean geratu da, antza, agenda politikoetan.

Jasangarritasun-kontzeptua nazioarteko agenda publikora iritsi denean, lehen adierazpen, txosten eta gidek kontzeptua teorikoki garatu dute, eta mundu-mailan garapen jasangarri baten alde egitearen garrantzia justifikatu. Alabaina, garapen jasangarriari buruzko lehenengo lanak gertuago daude asmo onen adierazpenetatik benetako inplementaziorako jarraibideetatik baino.

1. Lehen une batean, asmo onen katalogo hori, 2030 Agenda onartuz gure gain hartu beharreko helburu espezifikotan zehaztu da, jasangarritasunaren onura teorikoen eta mugarri zehatzak markatu behar diren arteko zehaztasun-ariketa bat eginez eta nazioartean hartutako konpromisoa agerian jarritz.


2. Bigarren une batean, larrialdi-egoerak orientabide orokorrak helburu espezifikoagoetara eramatea dakar, desparekotasun handiek beren horretan jarraitzeak, klima-larrialdiak, baliabide naturalak agortzeak eta beste faktore batzuek argi eta garbi uzten dute egungo garapenaren norakoa aldatzeko kontzienteki lan egin beharra.

3. Hirugarrenik, ekintza- eta gida-plan espezifikoak egiteko lana hasi da, lehenik orokorrak, nagusiki erakunde publikoek bultzatuak, eta ondoren, zehatzagoak eta espezifikoagoak, sormen- zein kultura-eremuko sektoreentzat.

Larrialdi globalaren testuinguruak azeleratzen ditu garapenaren gaineko eztabaidaren aurrerapenak, ekintza efektiboak lehenbailehen abian jarri beharra agerian jarriz. Premia-egoera horrek eztabaida teorikoa aldatu beharra dakar, proposamen zehatz, praktikoa eta operatibo bidea eman behar dielako, enpresa, erakunde eta partikularrek jasangarritasun-irizpideak aplikatzeko aukera izan dezaten.

Kultura-sektoretik lan egin da kultura garapen jasangarriaren aurrerabiderako funtsezkoa delako premisa frogatuz, eta, horren ondorioz, sektorea jardunbide jasangarrietarantz gidatzearen alde egiten duten ekimen ugari sortzen ari dira une honetan. Txostenak 3 gida orokor eta zeharkako eta 5 orokor eta sektorial aztertzen ditu, eta musika-jaialdiei eta ikus-entzunezko produkzioei lotutako gidak dira nagusiki.

Errealitateak erakusten du kultura-eremuan, jasangarritasun-soluzioak hainbat ikuspegitik aplikatzeko aukera badagoela, baina mugatu nahiak jasangarritasun-kontzeptua zehaztu beharra dakar berekin, operatibo egiteko. Txosten hau egiteko kontuan hartu da garapen jasangarriaren kultura-alderdia 5 ikuspegi desberdinen erlazioaren bitartez konfiguratzeko dela, eta horietatik abiatuta, kultura jasangarritasuna hobetzeko lagungarri izan daiteke ekintza-eremu moduan.



Jasangarritasunean eragina duten ikuspegi guztiak funtsezkoak diren arren, zehaztu nahiak berekin dakar gida honetan jasotako gomendio eta ekintzen arreta nagusia jasangarritasunaren ingurumen-ikuspegiaren jartzea, egungo klima-krisiaren aurrean urgentziaz jardunez erantzutearren. Ingurumen-jasangarritasunaren eremuan, funtsezkotzat jotzen diren hiru ardatzen gainean jarduten da:




Txosten honetan proposatzen da ekintza-gida bat egitea kultura- eta sormen-sektorean beren jarduera ingurumen-jasangarritasuneko irizpideetara egokitu nahi duten erakundeentzat. Gida praktikoa hau kultura-sektorearen barruko aniztasun handira egokitzeko, sormen- eta kultura-industriarekin lotuta egon daitezkeen jarduerak eta erakundeak sailkatu dira sailkatze-irizpideetan eta elkartzeko-ardatz zehatzetan oinarrituta. Ondoren, gomendioak sailkatu dira planteatutako elkartzeko bakoitzari egokitzeko moduko jardun-eremuen arabera.

Sailkapen-irizpideen eta elkartzeko-ardatzaren arabera banaketak aukera ematen du gomendioen gida sormen- eta kultura-industrien sektoreari lotutako erakunde guztientzat baliagarri egiteko, garatzen duten jardueraren espezifikotasuna edozein izanik ere.

Erakunde eta jardueren sailkapena		Gomendioen sailkapena ingurumen-eragineko eremuen arabera		
Sailkapen-irizpideak	Elkartze-ardatzak	Orokorrak	Jardun-eremuak	Gomendioak
Behin-behinekotasuna	Jarduera iragankorrak		Mugikortasuna	Mugikortasunaren eremurako gomendio zehatzak
	Jarduera egonkorak		Lehengaien erabilera	Lehengaien kontsumoaren eremurako gomendio zehatzak
Lekua	Instalazio eta ekipamenduak		Energia	Energiaren eremurako gomendio zehatzak
	Ingurunea		Hondakinak	Hondakinen eremurako gomendio zehatzak
Publikoa	Jarduera masiboak		Ura	Uraren eremurako gomendio zehatzak
	Formatu txikiko jarduerak		Erosketak eta kontsumoa	Erosketen eremurako gomendio zehatzak
Jarduera-profila	Zuzeneko jarduerak			
	Industria-jarduera			

Erakunde tipologia desberdinek intentsitate handiagoarekin edo txikiagoarekin erabiltzen dituzte ingurumen-eragineko sei eremu horiei lotutako baliabideak.



Sailkapen horietatik abiatuta, ekintza-gida bat egiten da, zehaztutako ingurumen-eragineko eremu bakoitzean aplikatzeko gomendio eta proposamenekin. Erakunde edo eragile bakoitzak, jarduera motaren arabera, ekintza-gida hau egokituko du aplikazio-eremu bakoitzari garrantzi handiagoa edo txikiagoa emanez, bere sektorearen eta garatzen duten jardueraren arabera.

Ekintza-gidarekin batera hainbat erreminta doaz, batzuk jada kontsolidatuak eta beste batzuk oraindik kontsolidatze-bidean, zehaztutako gomendioak inplementatzeko baliagarri direnak.

Kontsolidatutako erremintak	Erreminta emergenteak
Indarreko lege-esparrua	Ekintza-gidak
	Inpaktu-ebaluazioak
Ingurumen-ziurtatzeko sistemak	Ekintza-planak
	Inpaktu-adierazleak

Txosten hau egiteko egindako analisitik ondorioztatzen denez, Espainian egindako inplementazio praktikoko gida gehienak musika-jaialdiei eta ikus-entzunezko produkzioei begirako ekintza-gidak izan dira. Jarduera masiboak eta jarduera industrializatuagoak bi ekintza-eremu eztabaidagarrienak dira ingurumenaren kutsadurari dagokionez, eta gainera, ingurumen-jasangarritasuneko betekizunetara egokitzeko ekintza gehien burutu dituzten jarduera-sektoreetako batzuk ere badira, aldi berean.

Ekitaldi masibo handiak egitea jasangarritasun-irizpideen aurka doa, haren kontzeptualizazioaren unetik beretik, eta beraz, horietan eragin da bereziki, berez jasangarriak ez diren jardunbide, proiektu eta ekitaldiak jasangarri bihurtzeko, eta, ildo horretan, inpaktu negatiboak konpentsatzeko neurriak hartzeko. Gutxiago kontsumitzen duten jarduerak dituzten kultura-sektoreko eremuak ez dira hainbeste ahalegindu jasangarritasun-irizpideetara egokitzeko.

Gida honek baliagarri izan nahi du beren jarduera ingurumen-erantzukizuneko irizpideetara egokitu nahi duten kultura-alorreko enpresa, erakunde, entitate edo eragileen ekintza orientatzeko.

